

Artista pintore

ALFREDO
BIKONDOA

Artista pintor



Caja de Ahorros Municipal
Aurrerki Kutxa Municipal

Abendua - 1984 - Diciembre

01-1614
18788

AURREKALDEA:

Autoargazki baterako estudioa. Alfredo Bikondoa.

PORTADA:

Estudio para autorretrato. Alfredo Bikondoa.

© Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián
Aurrezki Kutxa Munizipala
Depósito legal : S.S. 643-84
Núm. Reg. Edit. : 661/68

Editado por

Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones (RSBAP)
Obra Cultural de la
Caja de Ahorros Municipal

Impreso por

Imprenta Cuèsta
Pedro Miguel de Urruzuno, 4 - bajo - Elgóibar

Fotografías

Rafael González
Víctor Charola

IDAZLE LANKIDEAK (alfabetoko ordenaren arabera):
COLABORADORES LITERARIOS (por orden alfabético):

BIKONDOA, Alfredo

ITURBIDE, Joaquín

KORTADI, Edorta

MORENO RUIZ DE EGUINO, Iñaki

IDATZITAKO TEXTUEN EUSKARAZKO BERTSIOA:
VERSION EUSKERICA DE LOS TEXTOS LITERARIOS:

TXILLARDEGI

SEBASTIAN CAJA DE AHORROS MUNICI- PAL DE SAN



AURKIBIDEA - INDICE

Alfredo Bikondoa -rekin solasean	13
Conversación con Alfredo Bikondoa	43
Bikondoa -ren margolaritza	79
La pintura de Bikondoa	93
Alfredo Bikondoa -ren espresionismo abstraktua	107
El expresionismo abstracto de Alfredo Bikondoa	113
Alfredo Bikondoa -ren biziera	119
Alfredo Bikondoa - biografia	121



Autorretrato



Escultura aluminio

**Alfredo
Bikondoa-rekin
solasean**

Iñaki Moreno Ruiz de Eguino

I zatia

Margolariaren gorabeherak. Koadroa leiho gisa. Sinboloen berraurkikundea. Arte-bilaketa. Parisen barrena pasean. Berriro ere etxera. Arte objektiboa. Gizona lotan dago. Denboraren kontzeptutik irten. Espazio anizkunak. Nork bere betekizuna sinetsi. Gizatiarraren eta jainkotiarraren artean. Margolaritza berez esoterismo hutsa. Tarot delakoa, hizkera zifratua.

II zatia

Berriro ahazteko eskola bat. Jaioberrien antzera begiratzea. Gure harmena. Gizon modelatua. Sendikera hor duzu: erabil ezazu. Askatasunaren erabilpena. Heriotzaren ikonografia. Alkimi-sinboloak. Zuhaitza eta zumea. Irakasleak bere ikaslea hautatzen.

III zatia

Sormena. Erritozko diagrama geometrikoak. Arte-katarsia. Galdutako arima. Lan mekanikoa. Sekula aspertu gabe, margotu eta margotu. Eguneroko ginkinzun xeheetan barrena. Arte heldua.

IV zatia

Bakardade ozena. Ikuspen gorena. Zuk margotu, bai, eta koadroak zu salatzen. Kopia sortzailea. Hizkera errazionalista. Bere burua sortu duen semea. Gizon erne bat. Zibilizazioa eta ispilua. Kontrolatutako artea. Sekula aurkeztu izan ez diren arteak. Eguneroko biziaren alorra. Barruan haur bat. Deusen atzetik ibili beharrik ez.

I ZATIA

MARGOLARIAREN GORABEHERAK

Fisikoa eta biologikoa, heriotza eta bizitza, erdibana partekatzea adierazten du margolari izateak. Ametsetako kristala ahalik eta leunkienik igarotzea: horra hor lorkizuna. Jadanik erabiltzen ez den filosofia batez baliatzea bezala da: bere isiltasunean hiltun, eta bere giroan urrintsu; eta gure begien aurrean bizi-bizirik eta kanpoaldetik xurgatua bezala. Gure emozioaren zainak dardaratzen ditu haren gunak, nahiz bihotzaren taupadek beren hartantxe segi. Alfredo Bikondoa margolari gazteaz, gizon urduria aipatu behar da, bilatzaile nekagaitz eta saiatua. Eta artistaren irudia nik neure aldetik marratuz, eta han-hemenka borobilduz, jokatzea, harrokeria litzateke.

Bidezkoago izango da elkarrizketa honetara gomitatzea; eta horretan barrena, haren mundua eta izakera, haren argitasuna eta nortasun misteriotsua oratzen dituzten alderdiak oro ilaran ikutzea.

Ezinezkoa da gizon honen ariman dauden bizi-atalak bermatu eta zehaztu nahi izatea (eta gauza bera esan daiteke beste edozein hilkorri buruz). Imajinaren atal geldi bati zurturik begiratzea litzateke; han dagoen irudi osoaz eta borobilaz konturatu gabe. Ondoko leerro hauetan, hortaz, besterik proposatuko dizuet: edozein galderari erantzutean sortzen den amaitu ezinezko zalantza isuriari zerok ere eustea. Zehaztasunik ez horixe baita erantzunik egokiena: beronen bitasunean bertan, edo-ta zorroztasun harrigarrian.

Haren lan-margotegiko atea zabaldu, eta hantxe goaz gu barrura. Aireari trementina eta abarras usaina dario, pintzelak, artegin saiatuak bailirakeen, eltze soiletan pilaturik agertzen zaizkigu, lanerako beti prest.

Bere mahaiaren ondoan esertzeko eskatu digu Alfredok. Eta haren begirada biziaren keinada batez, elkarrizketari ekin diogu. Ezin egon, arte horretan, margotegian inguratzen gaituzten gauzak oro banan-banan begiratu gabe.

KOADROA LEIHO GISA

Zer zaik hiri margolaritzan aritzea?

Oraingo une honetan halako leiho ireki bar zaidak margotzea. Bilatzen dudan izari hori ez zegok, egon, leihotik at; baina itxura guztiak gesaldu eta desagertu ondoren, hauxe duk gauzak hobeki eta sakonkiago konprenitzeko daukadan tresna. Nolabait esatekotan, sinbologiaren bitartez, esfera gorenekiko harremanetan bezala has zitekek margolaria. Ez niake nik hori zertan datzan zehazkiegi azaltzen jakingo; baina modu horretantxe altxatzen naik. Neure adimenak izkutatzen zizkidan izaki-atalekin has naitekek, agian, harreman berrituan. Edo-ta, agian berriro ere, neure izaki-atal desberdin horietako baten atzean hor nonbait kokaturik gelditzen zaidan munduarekin. Eta orain hori guztia jakinaren gainean erabil zezakeat.

Margoketa, hortaz, halako pertsona-osakuntza edo duk hire kasuan.

Bai, halako osaketa pertsonala duk niretzat, egia duk. Ongi jabeturik bederen ikuskatzen ez neuzkan atal izkutu horiekintxe lotura egiten laguntzen naik margotzeak; eta atal horiek, nolabait esateko, jainkotiarrago edo gorenago iruditzen zaizkidak.

Zorua mosaikozkoa da; eta honen gaineko paretetan koadrotxo batzu daude. Hauetan sinu bitxiak ageri, geometria urrun ez duten errazionaldutako sinboloak agian. Oroikarriak azkartu, poesi hitzaldi izkutu eta irizketa berriak eskatzen dituzten sinboloak bide dira.

SINBOLOAK BERRAURKITU

Alfredo, sinboloak maiz erabiltzen dituk heure margoketa lanetan. Heure kabuzkoak al dira sinbolo horiek, herorrek asmatuak, alegia? Ala, alderantziz, phizko adieraz-bideetan eta edonon onarturik daudenak erabili besterik ez dituk hik egin?

Ongi konturatzen nauk: nik darabiltzadan sinboloak, bazeudean antzina-ko kultura guztietan ere. Tantren artean aurki ditzakek, mayatarren artean, egiptarren artean; eta, nolanahi begiraturik ere, beti topatzen dituk berberak edozein eliza erromanikotan, edo beste hamaika tokitan. Bazirudik kultura guztietatik jasotako sinbolo berak direla non-nahi; eta heure koadroetan ere horietxek ikustean, bazirudik hik ere berriro aurkitu dituala, **berraurkitu egiten dituala**. Ezin sinets zezakeat inondik ere neure asmakariak direnik. Bazirudik geronen inkontzientean dautzala; eta, margotzen hasterakoan, piztu-edo egiten direla gugan.

Eraginik ba al du idarokipenak hire lanetan?

Egia esan, idarokipenak eragin handia dik; inguratzen gaituen guztiak, etengabe jasotzen ditugun inpresioek, beti ere zerbait proposatzen eta idarokitzen baitigute; eta, era berean, oharkabezko ekintzak sortzen dizkitek gugan.

Bukatua duan koadroan, iradokipen hori eta olerkia ezkontzen al dituk?

Hein batez, bai.

ARTE-BILAKETA

Mintzatzen ari garen gela kurritzen du Alfredok bere begiradaz. Bere bizia bideratuko zuen barne-deia, bertan jaio zitzaion; eta geroztik arteen aldera jo erazi du beti.

Noiz nola sortu zen higan margoketarako barne-deia?

Betidanik, edo oso haurretandik bederen, margotu izan diat nik. Hain zuzen ere, nire ekintza bakar-bakarra margotzea izan dela esan zitekeek. Antigua-auzoan bizi ninduan neure gurasoekin; eta, ongi iltzaturik zeukeat pasadizu hura: drogeria baten aurretik pasatzerakoan, eskaparatean zeuden olio-margozko hodi batzu gailendu zituan. Zalantza izpirik ez nire aldetik; eta, erostekotan, sartu egin ninduan bertara. Baita erosketa hura egin ere; eta margoki haietxetaz burutu nizkian neure lehendabiziko koadroak. Nolanahi ere, eta olio-zko margokera aurkitu aurretik ere, oroitzen naizenez, koloretako lapitzak erabiliz ere oso maiz marraztu ohi nian.

PARISEN BARRENA PASEAN

Noiz esposatu huen lehenengo aldiz?

Denak zituan, oroitzen naizenez, koadro figuratzaileak: bodegoiak zeudean, gai desberdinetan; denak errealistak. Geroago, gaien multzoa zabaltzen saiatu ninduan, are teknika bera ere; eta margoketa abstraktozko esposaketak ere burutu nizkian. Lan haiek, koloretasunari zegokionez, oso trinkoak zituan, oso beteak, eta kolore nabardura berezizkoak; beharbada inpresionisten eraginarengatik. Van Gogh-en oihartzuna ezagun zuan batez ere, nabarmen xamar, koadro haietan. Alfredok orduan gelako sabaira begira jarri da. Agian denboran zehar gidatuko duen ispilu magikoaren bila, eta Paristik ekarritako oroitzapen haietaz inoiz begietantzeko moduan eduki arte.

Zertarako izan zitzaian probetxagarri Parisen egindako lehenengo egonaldi hura?

Nik neure buruz margotu ahal izateko baino, neure familiatik hastantzeko izan zitzaidaan baliotsu, eta neure biziera beste modu batetara egiteko ere bai. Kanean egon nintzenean, hamar eta hamalau ordu luze ere erabiltzen nizkian margokuntza horretan. Eta hamabi bat urtez eutsi nioan margoketa-habaila horri.

67-eetan, nolakoa zen Parisko giroa; hi han bizi izan hintzen garai hartan, alegia?

Hara iristean, beste margolari adiskide batekin kokatu ninduan Latindar auzoan. Eta harekin, nola edo hala esatekotan, antzokietan, tabernetan, eta

bulebar handietan gertatzen zen guztia «idorotzeari» ematen genioan. Parisek dauzkan mitoa eta arte-ospea hor egonik, halako hiri batetara heltzean, begi berrituz begiratzen duk dena. Eta Parisen dagoen giro ugari eta nabar hori harrapatzen saiatu ninduan.

Parisko garai horri gagozkiolarik, zein artistarekin parekatuko huke hik heure margokera?

Inpresionistek hunkitzen nindutean gehienik. Hauxe duk egia: erruz gustatzen zitzaizkidan. Baina, inpresionistekin batera, Picasso, Miró, eta beste artista asko ere aurkitzen saiatu ninduan. Askotan, beroien koadroen fotoak ere ez nizkian inoiz ikusi. Garai hartan oso zitzaidan atsegin Arte Modernoaren Erakustokia ikuskatzea. Han gauza pila bat ikasi nian; baina margokera figuratzaileari eutsi nioan. Oraindik ere, beraz, denbora apur bat joan zuan bestelako margoketa-motak ulertzen hasi nintzenerako, Kandinsky edo Klee-ren hildotikakoak esate baterako. Eta, nik uste, hauek ere eragin handia izan ziaten nigan.

BERRIRO ERE ETXERA

«Haiek urteak»: esan nahi bide luke Alfredok; baina oroitzapen haiek dakarkioten liluramendua baztertzen duelarik. Etxera itzultzeko tenorea iritsi zitzaion, beraz, Donostiara bihurtzekoa, alegia. Eta honaz gero, oroitzapenak ez zitzaizkion falta. Paristar bizi-atal haiek, urrats berri bat egin erazi zioten bere bizian.

Paristik itzultzean, norekin egon ohi hintzen?

Nire lagunik hoberenak nor ziren? Egia esan, lagun asko neukean. Baina bereziki oroitzapen ona utzi didatenak, hauek izan zitezkeek agian: batetik, Juan Francisco García Villagarcía, margolari handia eta adiskide aparta; bestetik, Felipe Ugarte; eta beste bizpahiru olerkari ezezagun.

Alfredo beti elkarrizketarako prest, elkar-mintzaldi horietxek dira haren ekintzetako bat: bai bere irakaspenean eta gizatasunean, bai alderdi plastikoetatik ere.

Komunikazio edo elkarketa alorrean, zer adiera edo esanahi aurkitzen diok artelanari?

Artista bakoitzaren artelana, bere maila berezkoan zegok. Bestela esateko, munduaren bere ikuskera berezia atxikitzen duela adierazien dik horrek; eta munduaren irudi hori, oso aldatzen dela margolari batengandik besterengana pasatzerakoan. Bere obraren bidez, nahiz eta konturatu gabarik agian, besteekin harremanetan jarri nahi dik pertsonak.

ARTE OBJEKTIBOA

Uste duk hik badaudela arte objektiboa, batetik; eta arte subjektiboa, bestetik?

Artelan berean, nire ustez, margolaritza, imajinagintza edo musikazkoan, batera azter zitezkeek alderdi objektiboa eta alderdi subjektiboa. Beste alde batetik, gu geu garenaren arauera ikusten diagu dena. Koadroan aurkitu uste duguna, hitz batez, nolabait geronen projekzioa besterik ez duk. Hala ere, dudarik ez zegok, koadro bakoitzak bere xarma berezia dik.

Niri neuri, margolaritza taoistak harritzen naik gehienik; eta, nire ustez, txinatar artistek, beren koadroak hain modu pertsonagabea eta hutsartez beterik burutuz, gu zinez ikusle gisa hurbildu ahal izatea lortzen ditek.

Uste duk hik, hutsarte hori betetzeko edo, eta artelana betesteko, halako sorketa apur bat edo erantsi behar zaionik?

Gorago esan dugunez, koadroa begiratzerakoan, bera denaren puntutik abiatzen duk ikuslea. Gerta zitekeek, dena dela, koadroak harrapatu bezala gertatzea, berorren barrualdera uzkailezea; eta orduan, bai: koadroaren ezpala bihurtu arte alda zitekeek ikuslea. Gerta zitekeek, beste muturrean, ikusleak bere-berea besterik ez den koadro-ikuskerara berezia sortzea; eta begi aurrean daukan koadroan, berak senditu uste duenik ezertxo ere ez egotea.

Nolako lotura mamitzen da artearen eta biziaren artean; edo-ta alde-rantziz?

Beti izaten duk lotura bat bion artean; nahiz batzutan dena irudipena eta lilura hutsa izan.

GIZONA LOTAN DAGO

Ikusleak artelan bat betesten duenean, nola betesten du hire ustez? Jakinaren gainean paratzen dituk so, ala ametsetan hasten?

Pertsona bat ernai dagoenean, oso era berezian begiratzen dik. Pertsona bat lotan edo lozorroan baldin badago, berriz, ezer gutxi balia zezakeek ikusten duen horretatik; bere jarrera loari datxekiona delako. Loaren mailei dagokienez, berriz, dagoen lo-maila horren arauera begiratzen dik pertsonak.

Esnai ez, baina loak hartuta dagoen gizonarekiko aurkaritzan, beste terapia modu bat proposatzen ditek artistek: sendimenduak eta identifikazio-joerak gainditzeko ikusmolde berri bat eraikitzen dik sormenak; paira-beldurrak eta gainerako zuzenespeneak, normalean, mekanizatu egiten baitituzte pertsonaren funtzioak, eta nolanhiko lozorroan atxikitzen.

Egoera horietako batzu azaltzen dizkigu Bikondoak, baita bere obra sortzerakoan baliatu izan dituenak ere.

Oso modu desberdinez hasi dizkiat neure koadroak, eta batzutan oharkabezko gurariet gidaturik. Gero forma horietatik itxuraldatuz joan dituk; eta azkenean neronek alde aurretik finkaturik ez neukan zerbait eman ditek. Bestetan, alderantziz, gaizki tindatutako ate batek bultzatu naik, abiatzeko eta koadroa hasteko ideia bat eskainiz. Hori gertatu zitzaidan behin, adibidez, irudi geometriko batzu begiztatzean: interesatu egin nindutean, eta azken

buruan mandala baten inguruan tematu ninduan. Mandala horietan funtsaturik, koadro horietako batzu egin dizkiat; nahiz hauek, azkenean, haserako asmoekin agian lotura garbirik ez izan. Hauxe axola duk bakarrik, ene ustez: une batetan sortzen ari garenaz, ongi jabeturik egotea. Sorketa, beraz, egiarekin berarekin zegok loturik; eta ez, oso okerrean, errealitate deitu ohi dugun horrekin. Dena aurkitzen diagu kanpoaldean; eta, geronen barnerakoan, nahi-ta-ez iragazi behar diagu datorrena, eta orduantxe sortzen hasi. Interesatu nauen edozein gauzatatik jaio zitekek koadroa.

Garrantzitsutzat al daukag hastapenetako lilura hori gesaltzea? Alegia, miresten ari haizen gauza edo ikuspegi hori begiratu, eta oihalera pasatzeko gogoia datorkianean, sortu ohi den lilura berezi hori, ezabatu behar al duk aurrenik?

Egia duk, bai: haserako lilura horrek bete ohi dik artista lehenengo mementuan; eta horretxek ere bultzatzen dik margogai huraxe lantzera. Baina hirekin bat natorrek osoki: sendimendu bala hura lilura dela ongi ulertu arte, eta sentsazioaren bortitzak horditurik haukano, ezin dezakek errealitatea den bezala ikus. Gero, berriz, lilura hori suntsitu denean, orduantxe hartzen dik denak bere egiazko balioa; eta orduan bai, baina ez lehenago, bere artelanean barrena abia zitekek artista jo-ta-ke.

DENBORATIK IRTETEA

Nolako pisua aitortzen diok hik denboraren lilurari? Bai artearen alorrean, bai herorren biziarenean.

Nire koadroetan ez duk denbora sekula egon. Alegia: margotzen hasi izan naizenean, oso oso polliki joan izan nauk neure obraren mamikuntzan. Hain zuzen ere, nire koadro batzutan, hasera-haseratik eta azken amairaino, hamar urte ere pasa izan dituk. Oraintxe, une honetantxe, 70 koadro zeuzkeat neure margotegian, bukatu zai. Hortxe zeudek; harik-eta halako batez, ustekabean, agian zazpi urtez ikutu ere gabe utzi ondoren, hau edo hura kolpez han erreparatu, eta egun berean amaitu arte. Denboraren ideia, beraz, azaltzen zaila duk oso.

Lanean eusten hinduen ideia ganbiatzen al da, agian; eta lan-modua ere aldatu behar izaten al duk?

Izan, ez duk hori. Aspaldian hasi nuen koadroa berriro ere eskutan hartzea gerta zekidakek, eta hartaz pozik egotea; are gehiago ere, bukatu ikustea. Koadro bakoitzak bere mamikuntza berezia dik; eta, mamitze horretan barrena, bere garrantzia galtzen dik denborak. Denborak; edo-ta izendapen horren bidez ezagutzen dugun kontzeptuak.

Ez ote da agian gizakumeok denboraren ideia bat izan baino, «ni» txiki pila bat baizik ez daukagula? Batzutan, dirudienez, jauntxokerian hauek haiei nagusitzen saitzen bide zaizkiek, edo isil-erazten; eta horrela plegurik edo margobiderik azkarrena nagusitzen bide duk.

Bai. Denboran zehar mamitu ohi dituk pertsonaje horiek. Horietxek dituk

Ouspensky filosofoak «Psique-eraskinak» bataiatu dituenak. Denboratik at kokatu ahal izanez gero, pertsonaje horiek desagertu egiten dituk. Orain, beraz, denboratik at irtenahal izatea zaidak axola, horixe bakarrik; eta horretaraz gero, «psique-eraskin» horiek gainditu egiten dituk, eta ikuspen orokorrera iristen haiz. Orokorrera; edo askoz zabalago batera bederen.

ESPAZIO ANIZKUNAK

Tetra-izaritasuna, tetradimentsiotasuna, izan zitekek hori. Ez duka uste?

Nik tetra-ikuspena deitu ohi diat.

Eta hik nola definituko huke tetra-ikuspen hori?

Gure adimena hertsia duk; eta inorekin hizketan ari haizenean, elkarketa horretan ez beste ezertan daukak arreta. Beste zerbaiti ere erreparatzeko gauza izan behar genikek; mintzatzen ari garelarik, beste gauza askotaz batera konturatu behar genikek; eta, horretara balitz, ez lituztekek ohartu gaberik geldituko. Orduan gure adimena desberdina litzatekek, eta ez genikek horren hertsiki erabiliko. Ni hemen negok, esate baterako; eta ongi jabetu behar diat hemen zergaitik nagoenaz. Hitz egiten ari naitaiz, eta heure esanetan jarraitu behar haut; baina beste zerbaitetan ere bai: adibidez, hire asmoez eta neureez ohartzea. Barne-gogoeta hori bakarrik ez, baino kanpoaldekoa ere bai. Adimenezko ikuspegi zabalagoa izatea. Tetra-ikusmenak, hitz batez, hau adierazten dik: gauzen eta gertakarien alderdi desberdinak batera ikusi ahal izatea. Norbaitekin hizketan ari haizenean, eta berak zerbait hiri kondatzen dianean, hura soilik aditzen txunditurik bezala ez gelditzea; baizik-eta kondatzen ari zaian horren atzean ere zer izkutatzen den ikustea, eta hik erantzuten dioanaz ongi jabetzea, elkarrizketaren atzean dauden helburu gordeez konturatzeko. Hauxe duk tetra-ikusmena.

Askotan, gehiegitan hobeki, beharrezkoa izaten ez den elkarrizketa horri buruz ari haiz. Ez da hala? Alegia, irudimenak erremalak hartu, eta elkarrizketari eutsi ahal izatekotan, aitzekiak asmatzen direnean; are gezurrak ere erruz pilatzen.

Bai. Horixe duk. Norberaren hiruzurrak non dauden konprenitzea duk kakoa, azkenean norberaren paperadatik heldu direnak ez sinesteko.

NORBERAREN PAPERADA SINESTE

Mintzo garenean, egia adierazteko asmotan egiten diagu; baina beti ere desbideratuko gaituzten bideetan barrena abiarazten gaituzten aitzakiak sortzen dituk; azkenean halako gezurtxo «saindu» bihurtu arte. Zer deritzok honi?

Norberak erruz gezurtara zezakek bere burua. Nire kasuan bederen, eta jakinaren gainean eta gogoz lan eginez gero, auto-azterketa izaten duk ikerbide egokia. Ez zegok, nire ustez, norbera osatuz eta zuzenduz joateko beste biderik; eta ez diat aiputan orain jainkotiar osakuntzaren maila gora, hi pertsona «izan», eta heure kabuz «pentsatzea» besterik.

GIZATIARRAREN ETA JAINKOTIARRAREN ARTEAN.

Gizatiarraren eta jainkotiarraren artean, beti ere bilatu izan du gizonak erromes-bide zuzena. Honen azken buruan, jakina, tontorrera heldu nahi izan du; eta harainokoan bere arima hegaldatzen utzi, eta gorputza lur-amari ematekotan. Noizean behin esoterismo hitza agertu ohi da. Hitz honen arauera, jakitunen eta ezjakinen ezaguerak berezi behar dira elkarretarik: jakitunen irits-muga urrunago dago ezjakinena baino, eta errezelan atzean. Eta hura gordea denez, izkutuari dagokion gertalekuan sor daiteke «okultismo» deritzon joera.

Normalean eman ohi zaion esanahian, beraz, esoterismo hitzak ez du bere egiazko mamia biltzen; eta are gutxiago errezelen atzean izkutatzen dena. Nolabait hori argitzekotan, ohar berezi hau egingo dugu: Transformakuntzaren ideia ezaguna, eman dezagun, esoterismoari zegokion garai batez; eta gaur zientzi-bide hertsia zedarritzen duen eskualdetik at bil dezake oraindik esoterismoak. Antzinatean, eta jakitunei gagozkielarik, erlijio bat osatzen zuten mito mistikoek eta esoterikoek. Baina herri xeheari gagozkiolarik, beste erlijio bat zegoen izendapen horretan, dogmaz eta zerimoniaz oratua. Eman dezagun Grezia. Hango «misterio» delakoetan (Delfos, Eleusis, etab.), benetako antzerki-aldiak ospatzen ziren; eta beretan, beti sinbolo bidez, mito nagusiak iduri-erazten ziren herriaren aurrean: arimaren jaiotza materialian; arima horretxan bidaia eta heriotza, are aurreko bizialdian zehar izandako egonaldia ere. Egiptotarrek, bide beretik, mito mordo bat azaldu zuten beren margoetan genetikaz eta astrologiaz. Orpoz orpo darraizkio belaunak elkarri; eta hauekin batera, izkutuaren eta gordearen aldera lerratzen dira behin eta berriz gizatasunaren muinean dautzan galdera nagusiak eta hilezkorrak.

Alfredo Bikondoak ere izkutuarekiko grina hori dakar bere barnean; eta gorde hori ezagutu nahi duten guztien larrimina jasaten du. Bere artelan plastikoetan, bilaketa horren aztarnak agertzen dira; eta ezagutza izkutu horretarako atea zabalduko duen giltza aurkitzera bultzatzen gaitu. Lao-Tse-ren predikua lekuko: «Geure atetik kanpora joan gabe ere / mundua ezagu dezakegu // Geure leihotik begiratu gabe ere, zerurako bideak aurki ditzakegu //».

Alfredo-rengan oihal zuria da ate hori; eta berak margotutakoa da leihoa. Zerurako bideak bilatzen dituelarik, giza-tresna horietaz baliatzen baita.

MARGOKETA BERA, BERTERIK GABE, ESOTERISMO HUTSA

Alfredo: nola lotzen dituk hik esoterismoa eta herorren margolaritza?

Izan ere, esoterismo hutsa duk, berez, margoketa.

Hik margotzen duanean, inolako lotkiarik eratzen al duk iturri esoterikoekin?

Ez zekiat nik, jakin, orain kondatuko diadan honek hire galderari nolabait erantzugo ote dion. Orain, adibidez, tarot batetan ari nauk lanean, ohizko tarotetarik erabat urrun. Baina, aldi berean, beste tarot tradizional bat prestatu

diat; eta honetan bai: beste honetan sinbolo klasikoei eutsi zieat. Bigarren hau pertsona bakan batzuri azalduko zieat bakarrik, zuzenki eta giltzarriaren arauera nola ibili behar duten ere argituko diedalarik.

Aipatu diadan lehenengo tarota, neure gisara moldatu diat. Egiptotar, euskal eta bestetako tarot batzu luzaz ikertzen ari izan ondoren, zeinu bitxi batzu markatu dizkiat bertan. Haseran, halako karta txiki batzu marraztu nizkian. Bertan gizaki bitxi bat ageri zuan, osoki gorritz jantzia; eta besoak gora, txalupa berde batean itsasoan barrena zihoan. Eskuin aldean eguzki dirdaitsu bat ageri zuan, eta honen alboan euria emango zuen hodei bat. Gizaki horrek ortzadarra zeukak bere eskuetan; eta behean lurralde eder bat ikus zitekek. Behere horretan beti, geometria bitxia duen irudi bat ageri duk, nekez azaltzeko modukoa.

TAROTA, GILTZADUN MINTZAKERA

Nire ustez, mintzabide bat duk tarota: halako giltzadun mintzakera izkutu bat. Baina ezagutzen ez dutenek, ezin erabil. Mintzamolde hori ez daukana, alferrik aiko duk harrokerian, besteak eta bere burua ere nahasten dituelarik. Tarotak, hitz batez, bere mintzaira dik; arteak, bide beretik, gauzekiko bere harreman bereziak, edo-ta yogak bereak dituen bezala. Nori berea.

Tarotak arreta bildu behar dik, margoketak oharmena, eta yogak batasuna. Nor da babestuago, hire ustez, dena dela: yogia ala margolaria?

Nire ustez, yogia artista duk; eta bere gorputzaren bidez egiten dik artea. Margolaria eta imajinaria, desberdinak dituk. Baina bai hauek eta bai hark, guztiarekiko batasuna bilatzen ditek. Bai yogia eta bai margolaria IZATE raino heldu nahi ditek eta hel zitezkek; beti ere beren nortasuna gailen gertatzen ez zaien ber. Bestela, berori yogi izan zein margolari, itota gerta zitekek egiazko izate hori.

Interesgarri al zaik heure ezagutza esoteriko hori besteri heleraztea, horretarako heure margoketa lana darabilalarik?

Horretaraz gero, aurreko garaietatik berezi nauen izari berezia aipatuko niake. Oraingoan, askoz ere jakitunago nagok errealitatea senditzeaz. Ongi dakik hik, oso zail gertatzen zaigula beti emoziorik edo sendimendurik adierazten. Are gehiago ezagutzarik ximpleena azaldu behar denean. Aurrera goazelarik, beraz, eta beti ere geure mugaz ongi jabeturik geratzen garelarik, ezagutzen ez dugun horretxek laguntzen gaitik askotan. Nork bere koadroa amaitzean, ezagutza horiek betirako gelditzen dituk hor, bai esoterikoak eta bestelakoak ere. Ongi burutu diren obrak mirestea, beti izaten duk gauza atsegina. Artelan horretan dituk betirako lan lantsua eta luzea; bai aurreko saiaketak, bai mila zalantza edo kausiketa harrigarri, bai teknikaz jabetu nahian egindako borrokak oro: ñabarduren finketa, espazioen askakuntza, formen zehazketa. Horrela mamitzen duk artistaren hezketa, artistaren zailkuntza.

II ZATIA

DES-IKASTEKO ESKOLA BAT

Gaizki ez banago, heure egunetako parte bat erabiltzen duk margoketaren irakaspenean. Ez da hala?

Halaxe duk: hemen, Donostian, Arte-eskola bat antolatu diat.

Zer deritzok gaur egungo arte-eskolakuntzari?

Maiz xamar pentsatu ohi diat hezkuntza on baten garrantziaz. Eta horretxegatik ere Arte-eskolarena.

Zer deritzok, beraz, Arte-Ederren irakaskuntza tradizionalari. Noraino iruditzen zaik onuragarri irakaskuntza mota hori?

Irakaskuntza ongi bideratua den ber, onuragarri iruditu zaidak beti. Desbideraturik dagoenean, aldiz, informaziorik ezagatik edo jarreragatik, edo arte-interes honegatik edo hargatik osoki tinko eta aldakaitz kokaturik, aleianatzaile gerta zitekek. Bi aukera dituk, beraz: onuragarria bata, kaltegarria bestea. Neronen irakats-sistemari buruz, berriz, areago egiten diat nik «desikasi» esan daitekeena, ohizko «ikasi» esan ohi dena baino.

Nola definituko huke hik heure irakaspidea?

Niri dagokidanez, baditek beren maratila bai margoketak eta bai beronen irakaskuntzak. Margotzen irakasten dudanean, ordurartean bai irakasleengandik bai beraien gurasoengandik berengandik jaso dituzten irakaspen guztietatik jaregiten laguntzen diat jendea.

Halako berreskolaketa bat egiten duk, beraz?

Berreskolaketa hori ez duk posible, funtsean; berrito eskolatzea, berrito alienatzea bailitzateke, berrito ere norabide berriak eskaintzea, eta desbideratzea beraz. «Desikasi» egin beharra zegok, beraz, aurretik ikasitako guztia ahaztea. Honetarako, ekintza jatorrak eta egiazkoak behar dituk. Margoketa

duk bat. Izkutua, gakoa, honetan zetzak: geure kabuz, barne oldarrez, libroki margotzen ikastea.

JAIOBERRIEN ANTZERA BEGIRATU BEHAR

Zeri buruz ari haiz heure eskoletan?

Jendearengan egon ohi diren sortzeko moduak ikertzen dizkiat. Pertsona bakoitza desberdina duk, oso arazo bereziak dizkik, ber barne-mundua dik, desberdina. Ikaslea bere buruz hez dadin saiatzen nauk, eta pertsona horren sormen hori azkartzen. Katarsia lantzen diat.

Nola jokatzten duk, ordea, ikaslea ezagutzeko, eta bere egiazko izakera jalgi dadin? Nola gertatzen da hori? Nola bultzatzen edo eragiten duk horretarantz?

Ikasleak bere buruz eta bere kabuz ikusi behar dik mundua. Ongi dakianez, klixe-sorta baten bitartez ikusi ohi diagu mundua normalean. Horretara, txikitandik ikasi genuen guztiaren arauerako deskribaketa izan ohi duk ikusten duguna. Deskribaketa horrekiko etetea: horra hor, nolabait, gure helburua. Deskribaketa hori erauztea; geure kontzientziaren arauera, eta bera den horretan, ikusi ahal izateko.

GURE HARMENA

Zein pundutaraino gerta daiteke irakasleak bere ikaslea baldintzatzea; honek haren ikusmoldearen arauera mundua ikus dezan? Ez ote dezake irakasleak artistaren irudia, are Artearen ideia bera ere muga?

Denok gaituk, nola edo hala, geronen ingurunearen jopu; eta beronek mugatzen dik hein berean geroago kanporatuko dugun ideia. Baina, pertsona bat honen jakitun dagoenean nahi duen bere irudia aurkez zezake; eta gizartean barrena horrela jokatzea, egiten duenaz beti ongi jabetzen delarik.

GIZON MODELATUA

Eta horretaz ohartzten ez bahaiz, jakitun ez bahago, zer gertatzen da?

Jakitun ez bahago, besteek moldatzen haute. Kanpotik ari dituk heure irudia moldatzen eta modelatzen. Zine-aktoreari gertatzen zaiona gertatzen zaik hiri ere: hark ere bere filmetan honelako edo halako pertsonajea ordezkatu behar dik; eta, azkenean, behin eta berriz, eta luzaz, paperada bera bizi eta senditu ondoren, «bere» egiten dik pertsonajea, nortu egiten dik bere buruan, baita pantailatik at ere. Nor bere buruaz jabetzen denean, berriz, nork bere irudia ere zedarritzen dik.

«Nortasunaz» mintzatzen ari gaituk. Baina «Izatearen Esentziaz» edo muinaz ahazten ari gaituk. Gizon orekatu bat lortzeko, Esentzia edo muin horren garapena bideratu behar genikek. Hots, horretarako, nortasun delako horrek (nolazpait, sasi-nortasuna besteriz ez dena) pasibo edo jasale behar likek izan: eta horretara Izatearen maila-desberdinketa horren

bitartez, Barne-Muina hazi ahal izatea. Beraz, ezabatu egin behar duk sendikortasuna, nolabait esateko. Ez da hala?

Irudiaren sorkuntzaz ari haiz?

Hauxe esan nahi diat: ez ote dagoen kasu horretan nor bere burua moldatzeko aukerarik; edo-ta, beste muturrean, ez ote dagoen kanpoko indar gorenik, geronen izatearen moldatzaile?

Horixe duk. Kanpoko munduak, halako bibrazioak edo hedatzen dizkik; eta hauek, bai egoerak, bai gauzak, eta bai gu geu ere, aldatu egiten dizkitek. Honetaz jabetu haizenean, ordea, aldatu egiten duk egoera; eta inguruneak hi aldatu beharrean, heuk duk ingurune hori aldatzen. Arazoa, beraz, kontzientzi arazoa duk. Mundua ulertu beharra zegok, heure burua ulertu behar duk; eta errealitatez zer den ere jabetu beharra ere bai.

SENDIMENA HOR ZEGOK. SENDI EZAK, BERAZ.

Gizonaren nortasunari eta muinari zetxekiek hau. Baina, hi artista haizen aldetik, hire iritzia ezagutu nahi diat. Zertan datza sendimen hori? Edo-ta, nola iratzar genezake? Zein bidetatik lor genezake?

Sendimena hor zegok, harriturik, blokatu. Ezer egin ahal izanez gero, desblokatu behar aurrenik. Sendikortasuna hor zegok beti. Preso zerk ote daukan aztertu behar diagu, nola jaregin genezakeen ulertzeko; eta, horretara, bere askatasun egiazkoan berriro finkatzeko.

ASKATASUNAREN ERABILPENA.

Zoritzarrez, horren maiz eta arinki erabili ohi den «askatasun» hitza onartzetik ez zeukeat. Gure hezkuntza dela-ta, bi muturretatik hel daitekeen makila iruditzen zaidak, moralitasuna bezala. Halaz ere, askatasunari buruz daukakan iritzia ezagutu nahi niake; baita hartan sinesten ote duanez ere.

Sinetsi, sinesten diat. Bai. Baina azaldu egingo diat. Aspaldian hau esaten nioan neure buruari: «libro izan nahi dut». Orain, berriz, besteak libro izatea desiratzen diat funtsean. Neronek neure askatasun hori nola erabiliko ote nukeen ematen baitit beldurra; eta ez askatasun hori besteek nola erabiliko duten.

Hartu ohi dugun askatasuna, libertinajea izan ohi duk maiz; zeren-eta geronen buruarentzat nahi izaten baitugu askatasuna, baina ez besteentzat. Nekez uzi ditzakek libro heure inguruko jendeak; beldurrak dagoelako. Eta batez ere, nekez baizik zokoratzen ez dituan eskemak abandonatu nahi ez ditualako.

Kanpotikako gertakariak horrenbestez markatzea, heldutasunik eza iruditzen zaidak; zeren-eta gertakari horiek, berenez, guk bide ez ematekotan, ez baitute kalterik egiten. Ez ote da gakoa munduari buruz zabalago egotea, haurretan egon ohi ginen modura?

*Heriotza beti atzerago jartzeko geure gogo etengabea egon zitekek giltzarria. Soluzioa, agian, heriotza eta bizitza argi-eta-garbi etsaitzean egon zitekek, aurkaritza hori errotik bizi dugularik. Ezabaketa horri buruzko beldurra gainditzea: horra bidea; gure gauzatzat, are gure burutzat, daukagun **nitasun** guztia ahortzi dugularik. Berehala aurkeztu behar diagu borroka hori; bestela, era txarrean etorriko zaik, eta zer egin jakingo ez duala. Hobe duk, beraz, biziera heriotzari buruz prestatzea.*

HERIOTZAREN BIOGRAFIA

Nahi gabe, hemen gaituzue, betidanik misterio nagusia izan den heriotzaren inguruan. Mendeetan barrena hamaika artistaren, sinbolistaren eta inpresionistaren artegai izandakoa, orain ere hori bera duk: ez ditzagun joera berri batzu ahortz: Transvanguardia delakoa, edo-ta austriar eta alemaniar Gazte Basatiak.

Hiltzeak halako berpizkunde kutsua bazeramak, arte-sorkuntzaren prozesuan dagoen zerbait bazeukak. Artelana amaituta, berau sortu zuten ideia zaharkituetatik, laister sortuko duk beste bat. Artegai gisa, zer leku dugokio heriotzari heure margolaritzan?

Nire urrats guztietan, honetara edo hartara, beti egon duk hor heriotza, Sexua ere bai; nire ikusmolde apalean, biak elkarturik joan ohi direlako.

Ez al da hori behar bikoitz bat: sexua eta heriotza ager eraziz, bizia bera indartzeko eta orainaren kontzientzia azkarrago egiteko?

Gizarte edo giza-multzo batek halako hondamendiren bat somatzen duenean (gerlazkoa zein bestelakoa), beti ere, eta heriotza horren zantzu izkutu gisa, sexua agertzen duk; eta, gehienetan, sexu-gehiegikerietara eramaten. Hauxe duk sexutasuna eta heriotza nik beti elkarturik ikusteko arrazoi bat. Tantren artean, adibidez, sexutasunaren bidez gainditzen duk heriotza.

Egia esan, bi isuralde dizkik sexutasunak: batak bizitzera bultzatzen gaitik; heriotzara besteak. Alkimiaren alorrean, giza-hazia ez isurtzeko eskatzen zaiguk; modu horretan mudarazteko eta gorantz jasotzeko. Hots, hau guztia biziaren aldera joateko sinbolismoa duk.

Mudakuntza arazo hori ez al da kastitatea? «Coincidentia oppositorum» baita haraginahiak ukatzen dituen bertutea.

Ez, ez. Alderantziz. Sexu-harremanetara eramaten duena, tentsioa duk. Giza-atal bati ukaera egiten zaiok barnez, eta desoreka sortzen horrela. Ene ustez, egiazko kastitatea ez duk sexu-ekintzaren ukoa; koitoaren ondoren giza-hazia kanpora ez isurtzea baizik. Honetara, gorendu edo sublimatu egiten diagu. Funtsean, beraz, moralismoa, eta ongiaren eta gaizkiaren bitasuna, gainditu beharra zegok. Sexutasunak, berez, ez dik inolako balio moralik; baina ekintzaren arauerako jarrera balora zezakeagu.

ALKIMIAREN SINBOLOAK

Hire koadro batzutan ikusi dudanez, zenbait aldiz heriotzan edo sexuan oinarriturik dauden aipu sinbolikoak erabiltzen dituk; eta beste zenbait aldiz jatorri alkimikoa duten sinboloak.

Bai. Azkeneko lanetan batez ere.

ZUHAITZA ETA LIANA

Zein sinbolo edo ikurri buruz ari naiz?

Halako batez, ongi oroitzen naizenez, koadro bat prestatzen ari ninduan, eta zuhaitz bat margotu nian erdian. Haritzondo bat zuan; eta haritzean liana bat ageri zuan, adarretan trabaturik. Esaten nianez, erabat alkimikoa duk sinbolo hori; eta, hau ere esana diat, nola edo hala hasi beharra zegoan, eta gero iruten jarraitu. Koadroaren irakurreran laguntzen ditek sinboloek. Hor daukak Hermes-en sinboloa (Thot-arte eta zientzien asmatzailea), nire zenbait koadrotan ikus dezakeanez.

Isolaturik eta bakandurik al daude sinbolo horiek? Ala, aitzitik, beroien irakurrera zuzenetsiko lukeen lotura kontzienteren bat ba al dago?

Neurez, ez diat nik inolako mezu zehatzik hel erazteko asmorik. Hau gertatu duk, ordea: azkeneko neure artelanetan, funtsean intuizio bidez oraturik izan direla, eta harreman esoterikoen ondorio dituk beraz. Balitekek gakoa hau izatea: beti interesatu izan nauela gordea deitzen dugun horrek guztiak, eta etendurarik gabe bizitu izan dudala.

Lotura sinboliko horietaz jakitun al hago? ala geroz aztertzen duk, eta margotu duana zuzenesten edo argitzen?

Orain dela urte batzu, hau ez diat ukatzen, oharkabean eta konturatzeke sortzen zuan dena; eta orduan erreparatzen nizkian elementu sinbolikoak, eta klasikoen kide zirela ulertzen. Gaur bestela izaten duk; pentsatuago, ohartuago, eta ni jakitunago nolazpait esateko. Dakian hori ahantzi egiten zaik, ordea; eta berriro agertzen denean, berrezagutu eta berraurkitu egiten duk. Aurrerapenak, orduan, lehenengo aldian osoki ezezagunak zirenean baino lasterkiago gertatzen dituk.

IRAKASLEAK BERE IKASLEA HAUTATZEN

Haseran, bete beharreko jakinmin hutsaren aldetik ere, erakarri egin gaitzakek oihan esoterikoak. Oso berezia den oihan horrek, ordea, berehala erakutsiko ziguk bere konplexutasuna: batean landare usaintsuak baldin badaude, adimena desbideratzen duten soroak ere ez dituk falta. Hemen norberaren patuan barrena lerratzerik ez zegok, ezta lianari helduta ibiltzeko bide segururik ez zegok. Gidari bat behar; honek faduretatik eta eskualde arriskuetatik urrun gaitzan; eta, batez ere, halako batez, kai segurura iritsiko garen segurantzia eta fidantzia eman diezazkigun.

Uste duk hik, Alfredo, ikasleak bilatzen duela irakaslea? Ala irakasleak dituela bere ikasleak aukeratzen?

Izan ditudan irakasleen artean, beti ere berek hautatu ninduten ikasletzat. Behin ere ez nik berak. Halaz ere, irakaskuntza bereziren bat interesgarri iruditu zaidanean, edo irakasletzat neukan (eta daukadan) pertsonajeren bat ezagutu nahi izan dudanean, orduan nik bilatu diat hura; baina ez dizkiat egoerak sekula bortxatu. Egoera sortzen ez bada, halaxe dela uste izaten diat, eta halaxe behar dela onartzen, besterik gabe. Norbaiten bizieran zerbait berezirik gertatzeko unea heldu bada, gertatu egiten duk. Horixe besterik ez, ene ustez.

III ZATIA

IZPIRITU SORTZAILEA

Gure ikuspuntutik begiraturik, nahasi egiten duk izar magikoa, erdiz erdi sinbolikoa eta batera egiazkoa denean. Ezin harekiko urruntasuna neur, ezta artistarekiko izango duen eraginaren maila ere. Artistak, berriz, bere koadroetan mamitu nahi lukeenaren kezka dik. Bere bilaketa finean barrena, inolako sailetan sartzen ez direlako, forma aldakorrak inguratzen dizkik. Kolore apartak xehatzen saiatzen duk, beroien inmanentzia argi garden eta aratzetan gailen erazten. Aroak sortzen dituk, eta margokerak; eta beroien jarraieran, izpiritu sortzaileak goldatu duen ildo argitsua soma zitekek. Margotzaren praxian abiatzen gaituk horrela. Zein joera kilikatu hau hi gehienik?

RITOKO GEOMETRI DIAGRAMAK

Urteetan barrena, oso lerro eta plegu desberdinetara margotu izan diat; eta horietako asko ez diat inoiz ere publikoki erakutsi. Lan-molde horien guztien artean, dena dela, geometria izan bide duk maiteena; eta mogimendua erantsi zioat. Lerro horietxek zaizkidak idarokitzapenetan emankorrenak. Egia esan, ez zekiat margoketa lanak direnik ere; areago ikusten baititut «rito geometri diagramak» gisa baizik (mandalak). Badizkitek halako ikusmen-kristalkuntzak; hitz ximple eta errazetan azaldu ezinak. Geometri-lan horien helburua hau duk: arreta biltzeko eta betesteko tresnak izatea honetan, beraz, koadroen antzera; nahiz ondorioak oso desberdinak izan.

Orain, margoketa-lan bat burutzekotan baino, errealitate berri bat bilatzen dudala esan nezakek: biziro susmatzen diat, hori bai; baina ez nekiake neure sentsazioak zehazki azaltzen; ezta bilaketa horretara zerk bultzatzen nauen esaten ere.

Geometri koadro horiek, heure gogoa jarrita daukaan Ekialdetar artearen mandala horiek, karratua eta zirkulua zeramakitek. Hots, hauetxek dituk

*bitasunaren irudi sintetikoa; eta sakabanaturik dagoena ardatz berean bil
erazten balio dik. Baina interesgarriago al zaik Ekialdeko Artea,
Mendebaldekoa baino?*

*Mendebaltarrarekiko aurkaritzan, oso zaizkidak interesgarri. Hala ere,
Mendebaldeko Arte-mogimenduei ere adi natzaiek.*

ARTE KATARSIA

*Artearen sinbologiaz mintzatu gaituk, eta irakaskuntzari buruzko hire
ideiez; baina hire margolaritzan nagusi den asmoaz mintzatzea falta
zaiguk.*

*Esan nianez, katarsia zaidak axola; honen bitartez bide desberdinetan
barrena halako askakuntza edo jaregitea mamitzen baita. Adibide bat emango
diat: sail surrealistaren parte diren lanetaranz bulizatu ninduenaz, mundu
onirikoa eta neronen izatea lotzen dituenaz, hitz egingo diat. Horrela azaltzen
dituk barne-sentsazioak koadroaren azalera; nolazpait eta neure gisara ulertu
ditudanak behinipehin.*

GALDUTAKO ARIMA

Mintza gaitezen katarsi horretaz.

*Ongi konturatzen nauk: eskuarki egoera aldakorrean bizi gaituk; eta
«galdutako arima» hori berreskuratzeke, geronen burua areago izateke,
etengabeko katarsi jarraikorra egin behar diagu; halako batez mundua begi
berri begiratu ahal izateke; eta berriro ere dena bere egiazko itxuran ikusteko.
Irudipenez eta baldintzapenez, ustelkeriatik eta gainerakoetatik askatu behar.*

*Hire artelan plastikoan, pleguen eta lan-molde desberdinenen aldetik, bi
sail antola zitezkek. Margotzaren ondorioei gagozkielarik, nolako eragina
dute azken funtsean espresabideak eta barne-egoerak? Zein da biotan
gailen?*

*Beti margotu izan dizkiat gai eta margo-bide desberdinak, baita garai
berean ere. Alde batetik, nigan dagoen parterik aberekoienaz barnetik jaregiten
lagunduko nauten margolanak egiten saiatzen nauk; eta, bestetik, «magikoa-
go» den margo-lana egiten diat. Zenbait aldiz, gogarte honetaz edo hartaz
askatzen nauk; eta finduago irtengo den obra bat jalgitzen duk nigan. Eta sobera
Beste zenbait aldiz, autore baten arrakasta pertsonala azpimarratzeko eraiki ohi dira erakusketa antologiko horiek. Artistak benetako ospea iritsi duenean, erakusketa soil bat antolatzea ez da aski; garrantzitsuago zerbait eratu behar da, gorenagoa, desberdintasun kutsua izango duen zerbait. Langintza osoaren zati bat bildu ohi da, nolabaiteko elkarketa duten obra batzu oso maiz; eta horri berari ematen zaio antologi izendapena. Mementu horretantxe, beste balio bat hartzen du hitzak: garrantzitsua da geroztik, edo baliosa, edo bikaina. Oraindik ere egintza betean dauden artisten antologiak ere egiten dira sarritan. Gizon hauek, ordea, bilatu egiten dute oraindik, haztamuka ari dira, ez dute diru arrakastak ematen duen sagaraketa lortu (nahiz faltsua izan). Antologia horiek errazak dira; artistaren obra, ugaria zein urria, oraindik ere inoren eskuarrean dagoelako. Hala ere ez dira antolatzen; antolatzeak eragozpenak sortzen dituelako. Eta betiko galdera jalgitzen da ezinbestean: zergatik hori bai, eta ni ez? Bat hautatu behar delako, besterik ez; gertakariak biltzen eta batera erakusten utzi ez duten mentura mamitzeko aukera gertatu ez delako; lukurreriarik gabe jokatu behar delako.

Orain bestelako antologia eskaini zaio Bikondoari: batera menturazalea eta arriskutsua, berrizalea eta klasikoa, herrikoia eta hautazkoa, harrigarria eta bakarra. Izan, ez da gaztea bera; lan bizian barrena murgildurik baitago urte-hamarkada luze hauetan. Aurkikundea ere ez da; ez baita artearen alorrera lehenengo aldiz agertzen. Bide-muga ere ez da, geldi-unea baizik; eta geldialdi honek ez du etorkizuna zehazten. Hauxe besterik ez da: ideia desberdin bat, azpikeriarik gabe artista baten obra bere luze zabalean publikoari erakusteko desira. Beste norbait izan zitekeen artista, eta berorren antologia ere oso interesgarri gerta zitekeen; baina ez zatekeen Bikondoa izan, oraingo honetan den bezala. Ez da artista, artista bat baizik; ez da kontsagratutako norbait, borrokan ari den bat baizik. Beren barneko antologia prestaturik daukaten beste askorekin doa Bikondoa ere, eskuz esku borroka berean; nahiz hauen kasuan publikoari erakutsi ez bazaio ere.

Bikondoa-ren margolaritza bizizalea da osoki eta arront. Kooning-en hitzak ezar dakizkioke berari: **«margolaritza –edozein margolaritza mota– benetako margolaritza izango bada, bizitzeko modu bat behar du izan, bizi-plegu bat esan dezagun. Ez dugu adoskeriarik nahi: goitikako etorria besterik ez dugu bilatzen»**. Halaz ere, artistaren bizialdian eta berorren margokera-pleguen artean ez dugu eraiki nahi. Gure bidea besterik da. **Haren margolaritzara hurbildu nahi dugu soilki, eta funtsean dautzalako hain zuzen somatu egiten diren bizikera-plegu horiek topatu nahi ditugu.**



Mamuetatik hasi nahi dugu. Koadro gupidagabeak dira. Aurpegiak dira beretan nagusi, egia da; baina aurpegi markets horiek giza-begitarteak ote diren ere ez dakigu, ala abere-buruak, edo-ta biak batera. Ezaugarriak erraldoiturik ageri dira, bihurriturik, torturaturik. Barne hondamendi baten kanporaketa dira. Sumendietako mazeletan aurkitu ohi diren harkaitz eta labaz oratutako erasketa hauskorrek gogorazten dituzte. Masa horietan ez dago lerro zuzenik, ez hegi garbirik: dena da nahasia, itsaskorra, iluna. Kolorea ere tristagarri. Ugari dira berdeak, bai; ez, ordea, udaberriko berde irribarretsuk. Baizik-eta berde



Autorretrato

zikinak, ilunskak, tristatzen dituzten tatxa beltzez nabartuak. Eta ageri diren horiak ere, ez dira argiz eginak, eta ez bizizkoak; ahulak, makalak eta herio-kutsukoak baizik. Pintzelkada ere luzea da, zabala, azkarra; eta hurbilago dago zigorretik laztanetik baino. Pintura horiek beldurtu egiten dute, izutu egiten dute, dardar jartzen. Beroietako ilunpea, margolaritza klasikoaren ekaitzetan agertzen den ilunpe bera da. Beroien gogortasun espresionista, pintura beltzaren gogortasuna da. Pintura odoltsuak dira, baina odol aztarnarik gabe; tortura hori gorputzari ez, baina izpirituari baletxekio bezala. Gizaizatearen alderdi tristeari dagozkion pinturak dira. Hots, alderdi horretantxe daude gizakumearen ustela eta hondakinak oro. Desberdintasunak eta tartreak salbaturik ere, Solana-ren margolaritzarekiko antz sakona dago - itxurazkoa edo marrazkizkoa ez bada ere. Bere burua zapalduita senditzen du ikusleak, miseriak zanpatua. Izpirituaren tragedia nagusiak, tristura, etsipena, erotasuna, elkarrirasten zaizkio, eta iskilurik gabe kolpatzen izugarrizko bortizkerian. Koadro horien aurrean ezininor hotz geldi. Ertrealitate horrek emandako ukaldiaren ondoren, liluramenduak kitto; marketsa delako, hain zuen, egiazkoago eta latzagoa. Fatsukeria, gezurra eta axalkeria desegiteko obrak dira. Barnemuinetara itzultzeko koadroak dira, biziera birmoldatzeko, arroka zakar -baina egiazko- horien gainean bizia eraikitzeako koadroak dira. Areto batetan zintzilikatzeko ausardia askatzen duten pintura izugarriak dira. Eta hala ere, bide seguritik jakin dugunez, saldu egin ziren beroietako batzu; eta ez nolanhika, egilearen bilaketa lantsuaren ondorioz baizik. Horren lehiasuki pintura horiek erosi zituen pertsonaren arrazoiak ezagutzea interesgarri litzateke zuen pertsona asaldatu bat ote zen? Ala gizakume normala ote zen hura, baina gizakiaren ilunpe sakonetara hurbiltzeko beharra senditu zuen norbait? Pintura horiek non jarri dituen ere jakin nahi genuke. Publikoa iristen den nonbait zintzilikatzea ez da erraza, edo-ta lagunak errezibitzen diren aretoan. Seguru aski, iruditzen zaigunez, gizona- bakarrik egon ohi den txoko horietako batean daude; bakardadean pentsatzera erretirutzen den nonbait, giza-izateari buruz presarik gabe gogoeta egitekotan hurbiltzen den nonbait. Badakigu ere zenbait kasutan ganbaran dautzala garai horretako obra batzu, hautsez estalirik; eta jabeak gertu daudela lan irribarretsua goen truke emateko. Mezuaren indarra, sakontasuna eta egia itzuri zaizkie. Edo-ta, agian, hori ulerturik ere, edonoiz beren bizia asaldatuko duten beldurrak daude, edo-ta beren arimak zaurituko ote diren; eta oinaze horren ondorioz biziera egiazkoa sor balekieke ere, ez dute nahi. Guk geuk hau esan behar dugu: koadroak behin betetsi ondoren, herrero eta mila bider itzultzen direla adimenera, eta haserako zauskada dirdaitu hura behin eta berriz berritzen dela gudan. Osoki gizatiarra den desitxuraketa horren ukaldi bitxiak kolpatu egiten gaitu.

Bide horretan barreneko aurrerapenak, halako materikuntza ekarri zuen. Figura erabat desagertu zen, kolore-masak zaildu egin ziren, eta ia-ia margolaritza-imaginaritza bihurtu. Margoketa abstraktua ez da; konkretua, arront konkretua baizik; materia gailen gertatzen baita, eta honi datxekion kolore-tatxen baloraketa. Mami psikologiko nabarmena dute pintura trinko eta desitxuratu hauek. Gizonaren deuseztapena adierazten dute, eta sustraira, materia soilaren mailara itzultzea, Biziazen itxurak edo aztarnak aurkitzen saiatzea, alfer lana. Materia hutsa dira, Itxuraren eta figuraren deuseztapen horren ondoren, jaiotza berri bat idarokitzen bide da, biziera berri bat,



margolaritza berri bat. Horra hor hastapenetako magma, horra hor ahalmen hutsaren egoera; eta hortik edozein bide atera daiteke, edozein margolaritza joera. Bere sustrai xinpleetara iritsi da izakia, gainegitura guztiak galdu ditu, aldamio guztiak; eta ahalizate huts bilakatu.

Hurrengo garaiko koadroek, materia itxuragabe horretan dute oinarria; eta mundua itxuratzen hasten dira, egitura-zatiak diren aldetik multzokatzen. Bakardade koadroak dira; eta mundua ez da den moduan agertzen, baizik-eta errealitatea eta ametsa nahasirik datozen ametsaldi bateko irudiak bezala. Lurrazpiko zulo horiek ezinago luzeak dira, bukaeran argi ñimiñoa erakusten duten tunel luzeak. Sekula amaitzen ez diren eskailerak, gora eta behera doaz, zein atetarantz ez dakigularik. Gizon isilek, alimaletzar gaitzek, eta geometri-itxurek betetzen dituzte hutsuneak; baina ez osoki, beroietako parte izan nahi ez dutelako, dirudienez. Hor jarri dituztelako, hor daude; baina giroan bakardadea eta hutsarte somatzen dira. Lehengo berdeak, beltzak eta urdinak dira koloreak; eta han hemenka gorri-orbanak ageri dira. Baina pintzelkada desberdina da; bere ildoak galdu du, bere aztarna eta indarra. Orain ez da ikusten, ez da nabarmentzen. Koloreak lauak dira, nahasketak ongi doituak. Hastapenetako materia arkaikoaren kaosaren ondoren, itxurak eta argia agertu dira. Biziari datxekion tunela ez da geroztik hetsia: atzekaldean argia dago. Ermo eta zehatz, lerro zuzenak, borobilaireak eta uhinaireak agertzen dira. Lerro horretan, aintzindari gisa, zaldiaeren koadroa agertzen da; eta honetan eguratsera irten gara barnekaldetik. Mendialdea eta itsasoa hor daude. Argirako tarteak ez dira zirrikitu xixtrinak, tarte zabalak baizik; eta uztaien geometria hor egonik ere, irudiek beren indar tematzaillea galdu dute. Zaldia, haurra, iturria, bizi-indarrak dira jadanik; eta landareak eta zuhaitzak ere, bizi-garrasiak dira. Barrualde itogarritik kanpoalde irribartsurako urrats honek, bere arima-esanahi sakona du. Oraingo hauek ametzezko sorkariak dira, baina errealitatez hornituak. Koloreak ere desberdinak dira: berdeak atzera egin du, eta urdinak gailendu dira, gorriekin batera. Ondoko koadroetan, eta lerro beretik, aztarna surrealista nagusitzen dira: gereziak begi dira, hegaztiak ezpain, eta ileak hodei. Desberdina da surrealismo mota hau; eta beronen oinarria ez datza figuraren desitxuraketan, elemendu arrotzez eraikitzean baizik; hauetako bakoitzak bere zertasunari eusten diolarik. Hipotesi ausart bat bota nahi izanez gero, hauxe esan liteke: gero bi norabidetan amaituko den gizonaren eta munduaren sorkuntza bat dela.

Hauetako bata gizonarengana eramaten gaitu, eta bi ezaugarri berezi ekartzen: begitartea eta eskua. Bi hauek beti ere errealismotik irten gabe, fantasiakora eta alegiazkorako ihes-bide bat eskaintzen dute beti. Eta landareen eta ikuspegiaren munduek ihesaldi hori baiesten dute. Errealista margoturik ere, soin bihurtzen dira landareak Gizona naturaren sarrera dira, bakuntza sakon baten aitorra dira, eta materia arkaikoaren oihartzun urruna. Koloreak berak dira; baina alaiago agertzen dira berdeak, urdinak eta gorriak.

Bigarren horretan, berriz, giza-itxurek, eta alimale eta landareen irudiek, beren errealismoa galtzen dute. Eta honetan eskua bakarrik gelditzen da. Gainerako gustian, nahiz figuraketa funtsean hor egon, dena bilakatzen da zuzen mosaiko, eta borobil, triangulu eta errektangulu erasketa; zuriz




Autorretrato

inguraturik, kolore biziak nagusitzen direlarik. Gorriak eta horiak nagusi. Mundu berri baten sorkuntzarako urratsa da. Margolariarengan indarra topatzen da mukurru, bultzarena eta alaitasuna gainezka isurtzen dira. Tarteak errespetatu arren, koadro hauek amerikar indioen pintura arkaikoak gogorazten dizkigute. Azken buruan ez da inolako formarik somatzen, lerro zuzenak ia erabat desagertzen dira, eta kurbaki koloretsu mundu bat besterik ez dago. Bihurgune multzo horrek, uste dugunez, **biziaren induria eta sasoi ditu. Bizi-garrasia da, askapena, ilunpeen mundutik ateko irteera, gelditasunaren eta heriotzaren girotik atera, eta bizirakoa. Kurba koloretsu horiek, dantza dira, eta deihadar garaitzaile.**


Begitarte makal eta markets haiek utzi, eta materia itxuraba eta hautsi hura, eta irteera urrunetako lurrazpiko zulo haiez; eta orain naturako izakietara eta zilipurdika alai hauetara pasatzea, zinez jauzi gaitza da. Zein da horien artean benetako Bikondoa? Denak eta bat ere ez. Beti ere bera dago denetan; eta funtsean hau gertatzen da: beregan, esaten genuenez, margoketa bizia izatea betetzen da; eta, bizia denez, aldakorra da, desberdina, bizi bera bezain anizkuna. Eta honetantxe datza, hain zuzen, beste margokerarekin antz batzu izan arren, bere egiazkotasunik egiazkoena. Badu, bai, besterekiko antza; egiaren margokuntza delako, giza-margolaritza delako; eta jatorrizkoa da ere bai. Gizabanakoa baita, izan, jatorrizkoa eta bakarra; funtsean gizatiarra den guztia bezala.

Joakin Iturbide-koa






Autorretrato con ojos de cereza



Estudio para autorretrato



Autorretrato



LA PINTURA DE BIKONDOA

El lenguaje del arte es singular y, no pocas veces, críptico. Como todo lenguaje intenta expresar una realidad, denominar algo, pero frecuentemente se queda en una jerga para iniciados que lo aleja del hombre de la calle. Utiliza palabras corrientes pero con un sentido singular, característico. Ya se ha hecho normal aplicar a algunas exposiciones el calificativo de antológicas. Al visitarlas o al leer lo que se escribe sobre ellas surge la idea de que tienen poco de antológicas. Esta palabra de origen griego en su sentido etimológico significa elección de flores y como tal pasó al latín y al castellano con la palabra florilegio, que, aunque significa lo mismo, no ha tenido fortuna en el lenguaje artístico. Aplicada en primer lugar a la literatura y, más en concreto a la poesía, significa una selección de poemas.

Las exposiciones antológicas muchas veces son de artistas desaparecidos. Su centenario, un cambio sociológico o político los hacen actuales. El sentido de selección de obra, en principio se cumple pero con frecuencia la búsqueda de obra del artista se hace difícil y la selección complicada. Aparecen obras que el artista relegó al olvido o tentativas frustradas con interés para el conocimiento de los caminos seguidos por el artista pero con escaso contenido estético. En estas exposiciones el tono sentimental se recarga con frecuencia y las lamentaciones de incomprensión e injusticia abundan. La familia juega frecuentemente un papel en ellas y, no debemos silenciarlo, laten, a veces, oscuras intenciones económicas e incluso especuladoras. Un rasgo de estas exposiciones es que se repiten en diferentes ciudades o en la misma en distintas fechas y, curiosamente, las obras son casi siempre las mismas. Por ello se hace preciso en los casos diferenciales añadir una apostilla como obra de colecciones particulares o de un país o museo concreto.



Autorretrato

Otras veces la antología es un simple apuntarse al éxito personal de un autor. Cuando el artista ha alcanzado la fama viste el presentar no una simple exposición sino algo más importante, más solemne, algo que suene a distinto. Se reúne una parte de la obra, muy frecuentemente una serie de obras asociadas y eso se presenta como antológico. En ese momento la palabra adquiere otro sentido, el de importante, valiosa, excelente. No es frecuente hacer antológicas de artistas en camino, de hombres que buscan, que tantean, que no han obtenido el espaldarazo engañoso pero práctico del éxito pecuniario. Estas antológicas son fáciles porque la obra del artista, abundante o escasa está en su poder o al alcance de cualquiera. Pero no se hacen porque hacerlas acarrea dificultades. La eterna pregunta aflora necesariamente: ¿por qué ese y no yo?. Simplemente porque hay que elegir uno, porque hay que correr la aventura de presentar al público en su plenitud una obra que las circunstancias no han permitido agrupar nunca, porque hay que jugar a la aventura sin fines lucrativos.

La antológica original, diferente, aventurera y aventurada, popular y selecta, moderna y clásica, sorprendente y única se dedica a Bikondoa. No es un joven porque lleva varios decenios de trabajo intenso. No es un hallazgo porque se ha asomado al mundo artístico. No es un final de camino sino una parada, un alto que no define el futuro. Es simplemente eso una idea diferente, un deseo de presentar sin segundas ni terceras intenciones con una cierta amplitud la obra de un artista. Podría haber sido otro y su presentación antológica no sería menos interesante pero ha sido Bikondoa. No es el artista sino un artista, no es el consagrado sino el que lucha, el que sigue en la brecha codo a codo con otros que tienen su antología interna aunque por azares del destino no salga al público.

La pintura de Bikondoa es total y absolutamente vital. A él se pueden aplicar las palabras de Kooning "... la pintura - cualquier clase, cualquier estilo de pintura - para ser verdadera pintura debe ser un modo de vivir, un estilo, digámoslo así de vida. No queremos el conformismo, buscamos sólo la inspiración". Y, sin embargo, no queremos hacer un paralelismo entre las diversas etapas de vida del artista y sus estilos pictóricos. Nuestro camino es distinto. Queremos asomarnos sólo a su pintura y en ella encontrar esos estilos de vida que se transparentan porque laten en el fondo.


Queremos empezar por los fantasmas. Son unos cuadros feroces. Predominan los rostros pero unos rostros deformes que no se sabe si son de hombres o de animales o de ambos a la vez. Los rasgos están agigantados, retorcidos torturados. Son la eclosión externa de un cataclismo interno. Tienen algo de esas tierras rotas mezcla de rocas y lavas de las laderas de los volcanes. Son masas sin líneas rectas, sin perfiles nítidos, masas viscosas, lúgubres. El color es también tétrico. Abundan los verdes pero no esos verdes rientes de la primavera sino unos verdes sucios, pardos con negros que los entristecen y algunos toques amarillos que no son de luz y de vida sino macilentos, de muerte. La pincelada es larga, ancha, fuerte, más semejante a



Autorretrato

un latigazo que a una caricia. Son pinturas que asustan, que sobrecogen, que hacen temblar. Su tenebrosidad es la tenebrosidad de las grandes tormentas de la pintura clásica. Su dureza expresionista es la de las pinturas negras. Son pinturas sangrantes pero sin sangre como si la tortura no fuese del cuerpo sino del espíritu. Son pinturas de ese lado triste de la existencia humana, de ese lado donde se halla lo hediondo, el detritus de la podredumbre al descubierto. Con todas las diferencias y todas las distancias hay una analogía profunda - no de forma ni de dibujo- con las pinturas de Solana. El observador se siente hundido, aplastado por esa miseria. Las grandes tragedias del espíritu, la tristeza, la desesperación, la locura se agolpan y golpean sin armas pero con inaudita violencia. Nadie puede quedar indiferente ante esos cuadros, nadie puede seguir viviendo en sus ilusiones ante el mazazo de esa realidad, más real precisamente por ser escandalosamente deforme. Son cuadros para destruir lo falso, la mentira, la superficialidad. Son cuadros para volver a lo hondo para repensar la existencia, para empezar una vida nueva asentada en rocas ásperas pero reales. Son pinturas terribles que requieren un espíritu intrépido para colgarlas en un salón. Y, sin embargo, nos consta que se vendieron algunas de ellas y no al azar sino tras una búsqueda afanosa del autor. Sería interesante el conocer las motivaciones de la persona que con tanto afán compró esas pinturas. ¿Qué vió en ellas? ¿Era una persona atormentada que encontró en ellas la sintonía con su espíritu?. ¿O era un ser normal que sentía la necesidad de asomarse a las tenebrosidades profundas del ser humano?. También nos gustaría saber donde ha colocado esas pinturas. No es fácil que las haya situado en un lugar donde llega el público ni en el salón donde se recibe a los amigos. Nos parece más probable que se hallen en ese espacio mínimo donde el hombre está solo, donde se retira a pensar en soledad, donde se asoma, sin prisas y sin distracciones al misterio profundo de su existencia. Sabemos que otras pinturas de esta época yacen empolvadas en los desvanes, que sus poseedores están dispuestos en cualquier momento a cambiarlas por otras más risueñas. No han llegado a captar la fuerza, la hondura, la verdad profunda de su mensaje. O les asusta que puedan en cualquier momento inquietar sus vidas, lacerar sus almas aunque de ese dolor surgiese tal vez el comenzar a vivir auténticamente. Personalmente hemos de decir que tras su contemplación esos cuadros vuelven una y otra vez a la mente y siempre se renueva la relampagueante impresión primera. Ese toque misterioso de su deformidad profundamente humana nos golpea.

El progreso en esa línea condujo a una materización. La figura desaparece del todo, las masas de color se complican, se hacen casi pinto-escultura. No es pintura abstracta sino concreta, muy concreta, el triunfo de la materia, la valoración de las masas coloreadas. Estas pinturas densas, informes, tienen un gran contenido psicológico. Suponen la aniquilación del hombre, el acercamiento a lo elemental, a lo primigenio, a la materia pura. Es inútil buscar en ellos formas o huellas de vida. Son materia pura. La aniquilación



Autorretrato

de todo lo figurativo y lo formal parece predecir un nuevo nacimiento, una nueva vida, una nueva pintura.

Es el magma primitivo, la potencia pura de la que puede salir cualquier camino, cualquier dirección pictórica. El ser ha llegado a su posición más elemental, ha perdido todas las superestructuras, todos los andamiajes, es pura potencia.

Los cuadros de la etapa siguiente parten de esa materia informe y empiezan, como partes de una estructura, a formar el mundo. Son cuadros de soledad, cuadros en los que no aparece el mundo como es sino las imágenes de una ensoñación en que realidad y sueño caminan al unísono. Largos, larguísimos túneles con una minúscula salida luminosa al fondo. Escaleras interminables que suben y bajan hacia no sé que puertas. Hombres silenciosos, animales enormes, figuras geométricas llenan los espacios a medias porque no parecen formar parte de ellos. Están allí porque los han puesto pero la atmósfera es de soledad de vacío. Los colores son los mismos verdes, negros, azules y sólo aquí y allí unos toques de rojo. La pincelada es diferente, ha perdido su trazo, su rasgo, su fuerza. No se ve, no se insinúa. Los colores son planos, las mezclas matizadas. Tras el caos de la materia onduladas. En esta línea como un avance aparece el cuadro del caballo en que se sale del interior al aire libre. Aparece el campo, el mar. Las puertas a la luz no son ya agujeros minúsculos sino anchas aberturas y, aunque queda la geometría de los arcos, las figuras pierden su fuerza obsesionante. El caballo, el niño, la fuente son ya realidades vitales y las plantas, los árboles son también un grito de vida. Este paso del interior agobiante al exterior sonriente tienen un hondo significado anímico. Son criaturas de sueño pero contorneadas de realidad. Los colores son diferentes, retrocede el verde y predominan los azules, los rojos. En los cuadros siguientes de esta línea predominan los rasgos surrealistas, las cerezas son ojos, las aves labios y los cabellos nubes. Es un surrealismo diferente, que no se basa en deformar la figura sino en construirla con elementos extraños, cada uno de los cuales tienen su propia personalidad. En una hipótesis aventurada se puede decir que se trata de un proceso creador del hombre y del mundo que va a desembocar en dos direcciones posteriores.

En una de ellas se llega al hombre con dos rasgos característicos el rostro y la mano, que a pesar de su realismo tienen siempre una huida hacia lo fantástico, hacia lo irreal. Huida que son corrobora por el mundo vegetal y el paisaje. Las plantas, realísticamente pintadas se hacen cuerpo. Son una inmersión del hombre en la naturaleza, una confesión de integración profunda, un eco lejano de aquella materia primitiva. Los colores son los mismos pero más alegres, verdes, azules, rojos.

En otra estas formas humanas, animales y vegetales pierden su realismo. De éste queda casi únicamente la mano. Todo el resto con un fondo figurativo indudable se hace un mosaico de rectas, de curvas, de superficies circu-



El hombre de la estrella

lares, triangulares, rectangulares, enmarcadas de blanco llenas de colores alegres rientes. Predominan los rojos, los amarillos. Los verdes se retiran. Es el paso hacia la creación poderosa de un mundo nuevo. Se nota en el pintor un derroche de fuerza, de impulso, de alegría. Salvadas las distancias nos recuerdan estos cuadros a las pinturas primitivas de los indios americanos. Al final ya no se adivinan formas de ningún tipo, desaparecen, casi por completo las líneas rectas y solo hay un mundo de curvas coloreadas. Nos imaginamos que ese amasijo de curvas tienen la fuerza y el impulso de lo vivo. Es un grito de vida, una liberación, una salida del mundo de las sombras, la quietud y la muerte a la alegría de la vida. Esas curvas coloreadas son una danza, un grito exultante.

El cambio operado entre los rostros macilentos, deformes, la materia informe, rota, los subterráneos con salidas lejanas, los seres mundos inciertos en la naturaleza y estas cabriolas rientes es enorme. ¿Cual es el verdadero Bikondoa? Todos y ninguno. Siempre está él y en el fondo lo que ocurre es que en él se cumple, como decíamos, la realidad de que su pintura es vida y, por tanto, varia, diferente, multiforme como la vida misma. Y precisamente en esto, a pesar de sus semejanzas con otras pinturas, radica su originalidad más auténtica. Se parece remotamente a otros porque es pintura verdad, pintura de hombre y es original porque original y único es cada hombre consecuentemente, todo lo que es humano.

JOAQUIN DE ITURBIDE




Estudio para autorretrato




La diosa del amor



Retrato de Rosa Mary





Estudio para autorretrato

ALFREDO BIKONDOAREN

ESPRESIONISMO

ABSTRAKTUA

1 — MINTZATU EZINAREN POETIKA

Artearen ikertzaileek eta teorilariek diotenez, 1950 eta 1960 artean, bai Europaldean eta bai Japonian, eta informaltasunaren alorrean, mintzatu ezinaren poetikak omen dira nagusi.

Hori egia da, alde batetik, baina, batera, egia ez dela ere esan daiteke. Eta azaldu egingo dut. Zenbait poetika konkretutan, baliteke eskainitako mintzakerak hipotesi hori baiestea: itxura disfamatu egiten duen gizarte honetan, eta gizakien arteko mintzabide bakarizat hizkuntza ez dela onartua delarik, artea ere, hein batez bederen, ezin izan daiteke kondaira edo lotura. Horra hor Antoni Tapies-en emaitza, lekukotza mutu.

Bestelako poetika abstraktu batzu ere gerta daitezke, adierazkorrago, esanaitan zakarrago, salaketazkoak eta kontrakar moralekoak. Gure artean eta aspaldidanik, Carlos Sanz-ek nortzen du izpiritu hori; eta, morfologiz desberdin batetik, hizkera beraren barruan mogitzen da: gizarte zanpatzaile eta zapaltzaileak sortutako errealitatearen ikuspegi dramatikoak.

2 — BIKONDOA: MINTZABIDE KONKRETUA

Zeren-eta margolariaren eguneroko mundua, beste edozein gizakirena bezalaxe, beldur sakonez, gizarte-zapalketaz, politika-zapalketaz beterik baitago; eta halako batez hori guztia berorren ezta-

rrian lehertzen baita, ezaugarri diren munstroen itxurapean, edo-ta olagarro ezagunen atzean, eta irudikuntza horiek ez baitira batere bitxiak: hemen eta beti ere hurbildik zapaltzen gaituen "hemen zanpatzaile" horren adierazpena baizik ez baita.

Mirondar ispiraziozko irudi konkretu eta munstro launak mamitzen dira horrela (1973, Información y Turismo); eta artista-gizonaren kontzientzia hazi ala, mamia, tamaina eta izaria hartzen dute (1977, Lintzirin Hotela, Errenderia-Orereta). Ia beti, berberak dira olioeko koloreak, soilak eta hutsak, garrasi eta adierazpena erdi bana, eta taula honen arauera irakur daitezke:

kolorea	adierazpena
beltza	zanpaketa
gorria	oinazea, pairamena
zuria	garbitasuna, askakuntza
horia	lasaitasuna, atsedena

Egitura osatzen duten forma bakoi-tza, osotasunaren arauera josia eta margotua izan da (beti ere olioiz). Ezer ez da txiriparen ondorio. Dena dago landurik, neurturik, orekaturik; ez adimen hotzaren arauera, ordea, intuizioz eta barne-muinez baizik. Denean badago halako magia daraman zerbait; batera arte afroa, izkutua eta basatia. Hori dela-ta, posible da poloki egindako lana (obra batzu burutzeko urtebetea behar izan da), baita ilaran eta tendurarik gabe egindakoa ere (prozesu antzean lanegitea gertatu zaio, mementuan hirurogei obra lotuz: batak bestea eskatzen du segidan), edo-ta senaz eta batera lan-



El caballo blanco y la fuente mágica

dua. Hori dela bide, beraren obrek ez dute titulurik behar, ez hitzik, ez hitzaurrerik. Hitz biziak behar dituzte, hori bai, gorriak, horiak, zuriak, txori-fantesiak, izarrak eta eguzkiak, gaueko sinboloak, armonia zuriak, askatasun osoak. Horregatik, lan horrek gauera deitzen du (beti lan egiten du hamabiak jo ondoren), giro horixe baitzaio egokiena formak eta iratxo biziak hautemateko.

Beti ere espresionismo abstraktua-
ren alorrean, herri arkaikoekiko lotura sakonak ditu Bikondoaren sintaxiak; eta, hortaz, baita Miro, Zumeta eta Ruiz Balardi-ren ezpalekoekin ere. Nahiz guztiz menderaturik ez egon, adierazkorra izaten da haren hizkera: "Gauzen atzean dagoenak interesatzen nau ni"; eta, esan beharrik ez dago, gure herriaren errealitatearekin ados gertatzen da maila guztietan.

Artistak eskaintzen duen irakurrera multzoa, oso anizkuna eta aberatsa da; eta ez batere zalantzazkoak. Guri hauxe atsegin zaigu: batetik iraultza anarkikoa dakarren garrasia; eta bestetik trinko, astun eta beltza den garrasia.

3 — ESPRESIONISTA ABSTRAKTU BATEN KONDAIRA ETA KRONOLOGIA.

A) Alfredo Bikondoa (1942, Donostia. Caracas-en (Venezuela) bizi da bere familiarekin). Gazterik hasi zen margotzen. Villagarcia eta Ugarte-ren adiskidea da, bi hauek beren bide berezietatik garatu direlarik. 18 urte zituenean, seriotan hartu zuen margolaritza. Paris-a joan zen, han sei urtez pasatzeko. Gero Donostia-ra etorri zen; eta Sahatseren Plazako 8-an kokatu zen, Donostian.

B) Bere hastapenetan, errealismo egizalea gertatu zitzaion interesgarri (Velázquez). Gero inpresionismoa aurkitu zuen; eta amerikarrak beranduago. Arte abstraktua egiten hasi zen. Bi urte honetan, gauzaki konkretuetan jarri du arreta: forma misteriotsuak. Orain arago kezkatzen du adierazpenak, eraikuntzak baino: nahiz prozesuan barrena bigarren hau beti aurrean izan: lastaira bidezko bolumenak, artileak, zapiak, sokak, eta abar ...

EDORTA KORTADI
GARAIA. 1977 - 3 - 17







5/10/0000 38

EL EXPRESIONISMO ABSTRACTO DE ALFREDO BIKONDOA

1 — POÉTICA DE LA INCOMUNICABILIDAD

Dicen los estudiosos-teóricos del arte que las poéticas llamadas de lo informal, que entre 1950 y 1960 prevalecen en toda el área europea y en el Japón, son sin duda poéticas de la incomunicabilidad.

La afirmación, es cierta, y no lo es. Me explicaré. En algunas poéticas concretas, es posible que el lenguaje ofrecido confirme la hipótesis: en una sociedad que desvaloriza la forma y que ya no reconoce al lenguaje como la forma esencial de la comunicación entre los hombres, el arte, en parte, ya no puede ser discurso o relación. Ahí está la obra de Antoni Tàpies como presencia muda. Pero puede haber otro tipo de poéticas abstractas más expresivas, de significado más áspero, de denuncia y protesta moral. Carlos Sanz hace tiempo que viene encarnando este espíritu entre nosotros, y la obra de Alfredo Bikondoa, desde una morfología diferente, se mueve en las mismas coordenadas de lenguaje: visión dramática de la realidad producida por una sociedad represiva-opresiva.

2 — BIKONDOA: COMUNICACION CONCRETA

Y es que la realidad cotidiana de un pintor, como la de cualquier ser humano, está llena de miedos profundos, represiones sociales, opresiones políticas, que un día explotan en su garganta en forma de monstruos reconocibles, pulpos conocidos, figuras nada extrañas: expresión visceral, comunicación concreta de un «aquí represivo» que todavía cercanamente siempre, nos oprime.

Las formas concretas-monstruos planos de inspiración mironiana (1973 Información y Turismo) van cobrando cuerpo, volumen, tamaño, a medida que crece la conciencia del artista-hombre (1977 Hotel Lintzirin. Rentería). Los colores, al óleo, casi siempre los mismos, puros y primarios, mitad grito, mitad significado, podrían leerse de la siguiente forma.

color	significado
negro	represión
rojo	dolor, sufrimiento
blanco	pureza, liberación
amarillo	calma, alivio

Cada una de las formas que compone la estructura está pensada, cosida y pintada (siempre al óleo) en función del todo. Nada está dejado al azar. Todo está elaborado, pesado y sopesado, pero no con la razón, sino intuitiva y visceralmente. Algo hay en todo ello de mágico, de arte afro, misterioso y salvaje. De ahí que sea posible el trabajo lento (algunas obras han requerido un año), como concatenado (trabaja hasta sesenta obras en un momento, de forma prosesual; una obra pide la siguiente), instintual y elaborado al mismo tiempo. De ahí que sus obras no necesiten títulos, ni palabras, ni prólogos, sino palabras vivas rojas, amarillas, blancas, fantasía de pájaros, estrellas y soles, símbolos nocturnos, armonías blancas, libertades plenas. De ahí que su proceso requiera a la noche (siempre trabaja a partir de las doce) como ámbito misterioso de captación de formas y fantasmas vivos.

Su sistaxis, dentro de un expresionismo abstracto tiene ciertas connotaciones profundas con los pueblos primitivos, y por ende, con los Miró, Zumetas y Ruiz Balardis. Su lenguaje — no del todo dominado ni elaborado — resulta con todo sugerente y evocador: «Me interesa lo que hay detrás de las cosas», y, por supuesto, bastante coherente



Autorretrato

con la realidad del país a todos los niveles.

Las posibilidades de lectura ofrecidas por el artista son múltiples, ricas y nada ambiguas. A nosotros, nos gusta la del grito de rebeldía anárquico, disconforme y rojo por un lado; coherente, pesado y negro por otro.

3 — HISTORIA Y CRONOLOGIA DE UN EXPRESIONISTA ABSTRACTO


A) Alfredo Bikondoa (1942. Donostia. Reside en Venezuela (Caracas) con su familia). Comienza a pintar joven. Amigo de Villagarcía y Ugarte, artistas que siguen su propio proceso. A los 18 años toma en serio

la pintura. Marcha a París donde reside 6 años. Se instala en Donostia, Plaza Sauce 8 Escuela de pintura.


B) En sus comienzos le interesa el realismo verista (Velázquez). Luego descubre el Impresionismo, y, más tarde a los americanos. Comienza hacer abstracto. Desde hace dos años se interesa por cosas concretas: formas misteriosas. Le preocupa ahora más la expresión que la construcción, aunque la tiene en cuenta a la hora del proceso: volúmenes a base de arpilleras, lanas, trapos, cordeles, etc....

EDORTA KORTADI

GARAIA 17 marzo 1977



Estudio para autorretrato





Retrato Rosa Mary

A. BIKONDOA-ren biziera

Antiguako auzoan jaio zen 1942-an. Rafael beraren anaia marrazkizalea zen; eta honek nola eta zer egiten zuen ikusita, zaletu egin zen, eta txikitandik hartu zuen horrela marrazkiarekiko joera hori. Haseran tebeotatik kopiatu besterik ez zuen egiten. Hamar urte zuelarik, Venezuela-ra joan zen; handik 13-rekin itzultzeko. 18 urte zituenean, Juan Villagarcia margolariarekin hasi zen ikasten, eta geroago soldaduzka egitera joan; eta hau egiten ari zen bitartean, Udaletxeko azpialdean Villagarcia-ren ikasleek antolatu zuten erakusketa batetan hartu zuen parte. 24 urtetan Paris-a joan zen, han inpresionistak idoroz, baita Arte Modernoaren Erakustokia. Benetako aurkikundea izan zitzaion hau, eta bertan gelditu zen horrela bost urtez.

Rosa Mari-rekin ezkondu egin zen Donostian, eta handik urtebetera Paris utzi zuen. Donostian berriro, harreman estutan margotu zuen Villagarcia-rekin; honengandik orduan balio handiko laguntza jasotzen zuelarik. 14 urtetan barrena egunero lan egin izan du etengabe hamar eta hamalau orduz.

Donostian, Parisen eta Alemanian erakutsi izan du bere margolaritza, baita eskola bat ireki ere; honetan jende asko prestatuz.

Gaur egun marrazkia eta margolaritza azaltzen ditu, "La Estrella Mágica" deritzon arte-eskolaren sortzaile etakoa izanik, Donostian.



Rosa Mary

ALFREDO BIKONDOA - BIOGRAFIA

Nació en el Barrio del Antiguo el año 1.942. Su hermano Rafael era aficionado al dibujo y admiraba como lo hacía, así comenzó su interés ya de pequeño por el dibujo, copiando de Tebeos. A los 10 años marchó a Venezuela, regresando a los 13.

A los 18 años comenzó a estudiar pintura con el pintor Juan Villagarcía; después hizo el servicio militar, participando en una exposición que los alumnos de Villagarcía organizaron en los bajos del Ayuntamiento durante su mili.

A los 24 años marchó a París descubriendo los Impresionistas en el Museo de Arte Moderno, siendo un verdadero descubrimiento para él. Permanece 5 años, casándose con Rosa Mary en San Sebastián; deja París un año después. En San Sebastián pinta en estrecha colaboración con Villagarcía, del cual recibe una valiosísima ayuda, pintó ininterrumpidamente durante 14 años de 10 a 14 horas diarias.

Ha expuesto en San Sebastián, París y Alemania. Ha abierto la Escuela "La Estrella Mágica" dando cursos de dibujo y pintura e iniciando a mucha gente.



Escuela "Estrella mágica"

